



BIZIKLETAK ALOKATZEKO APLIKAZIOA: BikeNova

Ideia:

Ideia honen sortzaileak Maialen Rodriguez Ibarra, Maider Molina, Uxue Gonzalez eta Leire Sanchez gara. Proiektu honen bidez pentsatu duguna, bizikletak alokatzeko aplikazio bat sortzea da, baina alokailua aplikazioa duten bi pertsonen arteko trukearen bidez egingo da. Aplikazioaren izena BikeNova da.

Hurrengo ataletan, aplikazioaren funtzionamendua zehatzago azalduko dugu, baina sarrera honetan laburpen txiki bat egingo dugu:

- Proiektuaren helburu nagusia App bat sortzea da. App honen bidez, herrialde ezberdinetan bizikletak elkar banatzeko prest dauden pertsonen arteko komunikazioa erraztuko dugu, haien artean bizikletak alokatu ahal izateko. Adibidez: asteburu batez Extremadurara bazoaz eta bertatik ibiltzeko bizikleta erabili nahi baduzu (kotxerik ez duzulako edo besterik gabe, bizikletarekin ibili nahi duzulako), bizikleta alokatzeko prest dagoen bertako pertsona batekin kontaktuan jar zaitezke gure App-a erabiliz. Prezioa bi pertsona horien artean zehaztuko litzateke.
- Horrez gain, Bilbon lokal bat ere zabalduko genuke, xede gisa erabiliko genukeena. Lokal horretan bizikletak erreparatzea, gordetzea eta osagarriak saltzea da gure ideia.
 - Gordetzea: Pertsona batek bizikleta bat badu eta denboraldi batez (adibidez: neguan) gordetzeko lekurik ez badu, bertan utzi dezake. Denboraren arabera prezioa ezberdina izango litzateke.
 - Erreparatzea: norbaitek bere bizikleta apurtu badu edo bere bizikletarekin arazoren bat izan badu, gure lokalean konpondu dezakegu.
 - Osagarriak saltzea: lokalean ere bizikletetarako osagarriak eskaintzea gustatuko litzaiguke, hala nola: kaskoak, gurpilak, eskularruak, botilatxoak, giltzarrapoak, etab.